Juan Cruz Igerabide

## BI ITZAL

Argi elektrikoak jarri dituztenetik
desagertu egin dun bion itzala pretil ezkutu horretatik.
Zorrotzagoak egin ditun kanpai-hotsak argitasun urdinarekin.

Ez dakin, ez dakin nola entzungo nituzkeen berriro
kanpaitxori horiek, hire magalean begiak itxita!

Zumalakarregi hildako gau hartan bezala.

...

Orain sastraka hauen artera ekarri dizkinagu
gure itzalak.
Pretil hori argitan, gu ilunpetan.

Kanpaiek, ordea, min egiten zidatena belarrietan.
Olio epela eta guata.
Urrun zegon hire magala.

(Kirkerrak trabatu egiten ditun guatan)

Txikituko al ditut bonbilak tiragomaz?
Gugatik eta kirkerrengatik.

Orduan, berriro pretilean eseriko ditun gure itzalak
eta belarriak hire magalarekin itxiko dizkinat.

Igerabide

**DOS SOMBRAS**

*Desde que pusieron luz eléctrica / nuestras sombras han desaparecido del escondrijo–pretil. / Una claridad azulada hace más punzante el tañido de las campanas / ¡Quién pudiera escuchar aquel tañer–trino / con los oídos tapados en tu regazo! / Igual que la noche en que murió Zumalakarregi / Ahora escondemos nuestras sombras / entre estos arbustos. / Permanecemos en la oscuridad, mientras / nuestro pretil continua iluminado. / Las campanas me hieren los oídos. / aceite templado y algodón. / Queda lejano tu regazo. / (los grillos se tropiezan en el algodón, ¿sabes?) / ¿Quieres que rompa las bombillas con el tiragomas? / Por nosotros y por los grillos. / Entonces, nuestras sombras se sentarán de nuevo en el pretil / y cerraré los oídos con tu regazo. /*